2024ko urrian erregistratutako langabezia

2024ko urrian, LANBIDEren bulegoetan erregistratutako langabeen kopurua 501 gehiago izan da, hau da, % 0,46 gehiago, 108.497 pertsona. 2021eko urritik, hirugarren urtez jarraian izan da urrian langabeen saldo positiboa, nahiz eta aurten saldoa nabarmen urruntzen den aurreko urteko urrian izandako portaera txarretik.



	urr.-10	urr.-11	urr.-12	urr.-13	urr.-14	urr.-15	urr.-16	urr.-17	urr.-18	urr.-19	urr.-20	urr.-21	urr.-22	urr.-23	urr.-24
Saldoa	1.796	695	3.939	1.781	1.285	-823	-2.935	-1.990	-622	1.707	-6.287	-1.063	64	2.920	501

Urte arteko saldoaren bilakaerak erakusten du -1.148 (-%1,05) langabe gutxiago daudela iazko urriko kopuruekin alderatuta. Horrela, azken hilabeteetan urte arteko datuetan erregistratzen ari zen langabeziaren hazkundearen bilakaera eten da. 2024ko maiatzetik ez zen saldo negatiborik erregistratu urte arteko terminoetan. Hala ere, 2014ko urritik, urrirako urte arteko saldo negatiboak erregistratzea izan da ohiko joera, 2020ko urriko kasu puntualean izan ezik.

Gaur egun erregistratutako langabeen kopurua 2013ko martxoko maximo historikotik 70.844 pertsonatara dago; 2008an hasitako krisiaren unerik txarrena izan zen orduan. Aitzitik, gaur egun 37.542 langabe gehiago daude 2007ko ekainean baino; orduan erregistratu zen azken hamarkadetako gutxieneko historikoa.

Beste urri batzuetako balio maximo eta minimoei dagokienez, 2024an langabe pertsonen kopurua 69.770 txikiagoa da 2013an horrelako hilabete batean genuena baino, eta 34.756 handiagoa 2007ko urrian baino.

• SEXUA

Hileko alderaketan, sexuaren araberako datuak kontuan hartuta, emakumeen kasuan langabeziak behera egin du -315 pertsonatan (-%0,50) eta gizonen kasuan gora egin du 816 pertsonatan (+%1,81). Urte arteko saldoari dagokionez, langabeziak behera egin du bi sexuetan, eta emakumeen artean joera hobea izan da. Hala, emakumeak 631 gutxiago dira (-%1,0), eta gizonak -517 gutxiago (-%1,12) (+%137).

• ADINA

Hileko saldoan, langabeen beherakada izan duen adin-tarte bakarra 30-44 urtekoa izan da (-148 pertsona; -% 0,48). Talde hori izan zen aurreko hilabetean langabeen kopuruan beherakada handiena izan zuena. 30 urtetik beherakoek izan dute hazkunderik handiena (+547 pertsona; +%2,53), eta, ondoren, 45 urtetik gorakoen taldeak (+192 pertsona; +%0,33). Oro har, adin-tarte guztietan, emakumeen portaera gizonena baino hobea izan da.

Urte arteko saldoan, 30 urtetik beherako gazteak dira bilakaerari dagokionez daturik txarrena dutenak, aurreko urtean baino +527 (+%2,93) langabe gehiago baitituzte. 45 urtetik gorakoek izan dute beherakadarik handiena: -869 langabe (-% 1,45); ondoren, 30-44 urte bitartekoek, 806 gutxiago (-% 2,55). Oro har, adin-tarte guztietan, emakumeen portaera gizonena baino hobea izan da.

• JARDUERA EKONOMIKOA

Datua Sektoreka sektoreka hartuta, hileko saldoan, langile langabeen jaitsiera izan duen sektore bakarra eraikuntza da (-% 89; -% 1,51). Lehen sektoreak izan du hazkunderik handiena (+257; + % 14,42), eta ondoren datoz aurretik enplegurik ez zuten pertsonak (+239; +% 1,73), industria-sektorea (+51; + % 0,49) eta zerbitzuen sektorea (+43; + % 0,06).

Urte arteko saldoan, -1.175eko (-% 1,52) jaitsierarekin, zerbitzuen sektorean izan da jaitsiera handiena izan duena balio absolutuetan; balio erlatiboetan, berriz, eraikuntza izan da portaera onena eduki duena (-% 6,03). Igoera izan duen atal bakarra aurreko soldatarik gabeko pertsonena da (+682; + % 5,09).

Xehetasun handiagoz, azken hilabetean langabeziak behera egin duelako gehien nabarmentzen diren jarduerak hauek izan dira:

o 85 Hezkuntza	-586
o 41 Eraikinen eraikuntza	-81
o 88 Ostaturik gabeko gizarte-zerbitzuetako jarduerak	-58
o 94 Elkarte-jarduerak	-52
o 84 Herri Administrazioa eta defentsa; Derrigorrezko Gizarte Segurantza	-45
o 71 Arkitektura eta ingeniaritza; saiakuntzak eta analisi teknikoak	-32
o 25 Metalezko produktuen fabrikazioa, makineriarena izan ezik	-31

• Erregistratutako langabeziaren igoeragatik nabarmentzen diren jarduerak:

o 78 Enpleguarekin lotutako jarduerak	275
o 01 Nekazaritza, abeltzaintza	257
o Aurretik lanik ez	239

o 81 Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintzako jarduerak	169
o 56 Janari- eta edari-zerbitzuak	115

• LANGABEZIAREN IRAUPENA

Hilabete honetan iraupen luzeko langabezia 634 pertsonatan murriztu da. Iraupen laburreko langabezia 1.135 pertsonatan igo da. Iraupen luzeko langabeen kopurua guztizkoaren % 48,6 da, irailean baino 0,9 p.p. gutxiago

Termino erlatiboetan, urteko erreferentzian ikusten da iraupen luzeko langabeen kolektiboak gora egin duela, % 0,1 igo baita (60 pertsona gehiago), eta iraupen laburreko langabeen kolektiboak behera egin du, -%2,12, (-1.208 langabe gutxiago).

Iraupen luzeko langabeen profil nagusia emakumeen artean, Bizkaian, eta 44 urtetik gorako pertsonen artean dago. Azken hilabeteko bilakaera erlatiborik onena emakumeei, 44 urtetik gorako pertsonei eta Bizkaian bizi direnei dagokie. Iazko datuekin alderatuta, iraupen luzeko langabeziak gora egin du 30 urtetik beherakoen artean (+184, +%4,0) eta emakumeen artean (+275, +%0,9). Lurralde historikoen arabera, Araba da iraupen luzeko langabeen kopuruak behera egin duen lurralde bakarra, aurreko urtean baino 419 pertsona gutxiago baitaude (% 4,4ko jaitsiera).

• LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Hil honetan, pertsona langabeen kopuruak behera egin du lurralde guztietan. Gipuzkoan izan da jaitsiera erlatibo handiena (-%4,73), gero Bizkaian (-%2,57) eta azkenik Araban (-%1,83).

Urte arteko saldoan, Araban bakarrik jaitsi da langabeen kopurua (-772 pertsona eta -%4,08ko jaitsiera), aurreko hilean bezala. Bizkaian izan da hazkunde absoluturik handiena, 1.483 pertsona gehiagorekin (+%2,48); ondoren Gipuzkoa dator (+%2,01), non 560 langabe gehiago dauden.

Hilabete honetan, langabeen saldoa negatiboa izan da hiru euskal hiriburuetan, eta Donostiakoa izan zen jaitsiera erlatibo handiena izan duena, -%3,78ko jaitsierarekin. Ondoren Vitoria-Gasteiz (%-2,07) eta Bilbo (%-1,83) daude. Urte arteko datuei erreparatuz gero, Gasteizen bakarrik egin du behera langabeziak: -156 langabe daude (-%1,10). Bilbon 567 pertsona gehiago (+%2,73) eta Donostian +99 (+%1,52).

Urrian erregistratutako langabezia-tasa handienak izan dituzten udalerriak Lanestosa (% 16,52), Sestao (% 15,33), Amurrio (% 15,02), Ortuella (% 14,59) eta Alonsotegi (% 14,53) izan dira.

• LANGABEZIA-PRESTAZIOA

2024ko urrian, 35.263 langabek jasotzen dute langabezia-prestazioren bat, aurreko hilean baino 385 gehiagok. Gaur egun, langabeen % 32,5ek langabezia-prestazioren bat jasotzeko eskubidea dute. Langabeen % 18,5ek (20.064 pertsona) kotizaziopeko prestazioa jasotzen dute, aurreko hilean baino 0,13 pp. gehiago. % 12,92k (14.015) langabezia-sorospena kobratzen dute. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoa da babes handiena duen lurralde historikoa (% 35,0ko tasa), Bizkaian % 32,0koa eta Araban % 30,2koa.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, langabeziagatiko estaldura-tasa 0,21 puntu igo da, eta 0,55 puntu iazkoarekin alderatuta..

• JATORRIA

Langabezia egoeran dauden pertsona guztietatik 20.357 (% 18,8) atzerritarrak dira. 2024ko urriarekin alderatuta, langabeziak gora egin du atzerritar jatorriko pertsonen artean: +579 (+%2,93). Espainiako nazionalitatea duten pertsonen artean -78 langabe gutxiago daude (-%0,09), eta hil honetako kopurua 88.140 langabetu dira.

Urte arteko bilakaeran, atzerritar jatorriko langabeak % 4,14 gehitu dira, eta espainiar nazionalitatea duten pertsonen artean % 2,17 murriztu dira.

Atzerriko langabeen % 32,4 Afrika iparraldekoak dira, % 27,6 Latinoamerikakoak, % 15,3 Europako Esparru Ekonomikokoak, % 11,1 Saharaz hegoaldeko Afrikakoak eta % 6,7 Asiakoak.

• IKASKETA MAILA

559.434 langabek, guztien % 54,8k, derrigorrezko hezkuntzako ikasketak dituzte. Talde horretan 670 langabe gehiago daude (% 1,14) hileko konparaketan eta -1.344 gutxiago (% -2,21) urtekoan.

Batxilergoko ikasketak dituzten langabeak langabetu guztien % 7,8 dira. Azken hilabetean, talde horretako langabezia % 0,46 igo da, eta azken urtean % -0,13 murriztu.

Lanbide Heziketako ikasketak dituzten langabeak 27.832 dira, guztizkoaren % 25,7. Hil honetan, 492ko saldo positiboa izan dute, eta, aurreko urtearen aldean, % 2,01eko igoera. Urte arteko gehikuntza izan duen talde bakarra izan da.

Azkenik, langabeen % 11,8k, hau da, 12.791 pertsonak, unibertsitate-ikasketak dituzte, eta kolektibo horrek ditu daturik onenak hileko datuei dagokienez: -700 gutxiago (-%5,19). Aurreko urtearen aldean -342 (-% 2,60) murriztu dira.

• KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan langabezia % 1,04 igo da, 26.769 pertsona gehiago, eta guztira 2.602.054 langabe erregistratu dira; EAEn, berriz, erregistratutako langabezia % 0,46 igo da. Nafarroan % 1,61 igo da, Errioxan % 1,48, Kantabrian % 1,94 eta Gaztela eta Leonen % 2,03. Katalunian % 0,88 igo da, eta Madrilen % 0,14.

Lan-eskatzaile langabeak 2024ko urrian

	Urr-2024	Ira-2024	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	45.829	45.013	816	1,81
EMAKUMEZKOAK	62.668	62.983	-315	-0,50
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	18.511	18.054	457	2,53
GIZONEZKOAK	9.027	8.606	421	4,89
EMAKUMEZKOAK	9.484	9.448	36	0,38
25-44 URTE:				
GUZTIRA	30.787	30.935	-148	-0,48
GIZONEZKOAK	11.727	11.530	197	1,71
EMAKUMEZKOAK	19.060	19.405	-345	-1,78
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	59.199	59.007	192	0,33
GIZONEZKOAK	25.075	24.877	198	0,80
EMAKUMEZKOAK	34.124	34.130	-6	-0,02
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.039	1.782	257	14,42
INDUSTRIA	10.378	10.327	51	0,49
ERAIKUNTZA	5.809	5.898	-89	-1,51
ZERBITZUAK	76.200	76.157	43	0,06
AURREKO ENPLEGURIK GABE	14.071	13.832	239	1,73
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	18.503	18.152	351	1,93
BIZKAIA	61.304	61.379	-75	-0,12
GIPUZKOA	28.690	28.465	225	0,79
EAE	**108.497**	**107.996**	**501**	**0,46**

ESKUALDEKO BILAKAERA

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bajo Bidasoa	3.776	9,9%	49	1,31	9	0,24
Oarsoaldea	3.226	8,6%	-19	-0,59	-47	-1,44
Donostia-S.Seb.	6.642	7,4%	22	0,33	-95	-1,41
Donost.Oeste	2.852	7,3%	6	0,21	47	1,68
Tolosaldea	1.790	7,4%	-37	-2,03	-18	-1,00
Urola Erdia	1.184	7,5%	-15	-1,25	12	1,02
Goiherri	1.659	7,7%	73	4,60	67	4,21
Alto Deba	2.391	7,8%	59	2,53	43	1,83
Bajo Deba	2.682	10,2%	48	1,82	52	1,98
Urola Garaia	1.060	8,7%	29	2,81	22	2,12
Urola Kosta	1.428	6,1%	10	0,71	6	0,42
GIPUZKOA	**28.690**	**8,0%**	**225**	**0,79**	**98**	**0,34**
Vitoria-Gasteiz	14.247	11,1%	228	1,63	-194	-1,34
Valle de Aiala	2.211	11,6%	0	0,00	8	0,36
Rioja Alavesa	586	10,2%	73	14,23	21	3,72
LLanada Alavesa	674	8,9%	6	0,90	-11	-1,61
Estrib. Gorbea	309	6,2%	17	5,82	22	7,67
Valles Alaveses	392	7,6%	19	5,09	-1	-0,25
Montaña Alavesa	119	7,2%	3	2,59	6	5,31
ARABA	**18.503**	**10,8%**	**351**	**1,93**	**-872**	**-4,50**
Gobela	4.285	8,3%	-32	-0,74	24	0,56
Txorierri	2.034	8,7%	-11	-0,54	-31	-1,50
Uribealdea	2.797	7,9%	13	0,47	15	0,54
Duranguesado	3.195	8,4%	36	1,14	108	3,50
Busturialdea	1.974	8,8%	-24	-1,20	-53	-2,61

Lea-Artibai	833	6,9%	9	1,09	-44	-5,02
Encartaciones	1.825	11,5%	-26	-1,40	-61	-3,23
Arratia-Zornotza	1.379	7,7%	-27	-1,92	-37	-2,61
Medio Nervion	1.251	9,4%	-11	-0,87	-41	-3,17
Bilbao	21.333	12,5%	14	0,07	128	0,60
Margen Izquierda	16.175	12,8%	48	0,30	-108	-0,66
Ibaizabal	4.185	10,2%	-60	-1,41	-262	-5,89
BIZKAIA	**61.304**	**10,8%**	**-75**	**-0,12**	**-374**	**-0,61**
CAPV	**108.497**	**9,9%**	**501**	**0,46**	**-1.148**	**-1,05**

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.